

# 1. unitatea

## (-T(Z)EKO OSAGARRIA IZEN ATZERA)

**HELBURUA:** Ahalik eta errazen irakurri testua, alperreko zama saihestuta.

**PROBLEMA:** Honelako egiturak erabiltzen dira gaur egun nagusi:

– [Itzelezko mozkorra harrapaTZEKO] gogoa daukat

Izenak (gogoa) alperrik dauka ezkerretara -t(z)eko osagarria (kortexte artean), eta horrek nekezago egiten du irakurketa.

**SOLUZIOA:** Eroan dezagun osagarria aditz ostera:

– Gogoa daukat [itzelezko mozkorra harrapaTZEKO]

### *Termino jakin beharrezkoak*

- **Mendeko perpausak** (ilargira joaTEKO, nagusiago naizeNEAN...)
- **Osagarriak** (-t(z)eko osagarria...)
- **Osagaiak** (sekuentzia bateko elementu edo konponenteak. Izan daitezke, osagarriak, izenak, aditzak, sintagmak, izenlagunak, determinatzaileak...)
- **Hurrenkera** (ordena, segida)
- **Juntagailuak** (eta...)
- **Menderagailuak** (-t(z)eko, bait-, -(e)n...)
- **Semaforoak** (-t(z)eko.../menderagailuak, juntagailuak, atzizkiak...)
- **Atzizkiak** (-t(z)eko, -(r)ekin...)
- **Zeinismoa** (zein...bait- eta zein...-(e)n egiturak. Ikus 2. eranskina)
- **Egiturak** (zein...bait-/-(e)n...)
- **Aurkezpen-testuingurua** (aurkezpen-egoera, informazioa berria denekoa)

## 1.1. TEORIA

Gaur egun normal-normal ikusten dira han-hemen honelako perpausak:

- [Erroma eta inguruak ezagutzeko] gogoa daukat
- Semea [bere kasa bizitzeko] sasoian dago
- Liga honetan Athleticcek [inoiz baino hobeto jokatzeko] aukera dauka

Perpausotan informazio edo osagai mota bi daude: batetik, izenak; bestetik, *-t(z)eko* osagarriak, kortxete artean:

### **Izenak**

gogoa / sasoian / aukera

### **-T(z)eko osagarriak**

Erroma eta inguruak ezagutzeko / bere kasa bizitzeko / inoiz baino hobeto jokatzeko

Goiko perpausak, eurretan osagaiak dauden ordenan egonda, nekagarritxo irakurtzen dira, eta gaur egun, joera gogorra dago segida horretan (“*-t(z)eko* osagarria + izena”) emateko informazioa, gaztelaniaz kontrako hurrenkeran. Ikus dezagun zelako arriskugarriak izan daitezkeen perpausak komunikagarritasunaren aldetik ordena horretan emanda. Horretarako, perpaus bat hartuta oinarri, *Gogoa daukat*, gainera diezazkiogun *-t(z)eko* osagarri bat eta mendeko beste perpaus batzuk banan-banan, kortxete artean sartuta:

- Gogoa daukat
- [Ilargira joateko] gogoa daukat
- [Nagusiago naizenean ilargira joateko] gogoa daukat
- [Nagusiago naizenean eta diruz josita nagoenean ilargira joateko] gogoa daukat
- [Nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean eta nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean ilargira joateko] gogoa daukat

Ikusten dugunez, oinarritzko perpausari gehitu diogu, lehenengo, *Ilargira joateko*, bigarren, *Nagusiago naizenean*; hirugarren, *diruz josita nagoenean* eta, laugarren, *nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean*. Mendeko perpausok direla-eta, adibidetik adibidera, nekez irakurtzetik nekezago irakurtzera igarotzen gara, infernua bihurtzeraino irakurketa azken adibidean. Argi dago horrela idatzita, komunikatu ez beste edozer egiten dela. Goiko perpausetan informazioaren marapiloa askatzeko, badago bide bat ezin errazagoa: eroan ditzagun mendeko perpausak izen atzera, eskumatara:

- Gogoa daukat [ilargira joateko]
- Gogoa daukat [nagusiago naizenean ilargira joateko]
- Gogoa daukat [nagusiago naizenean eta diruz josita nagoenean ilargira joateko]
- Gogoa daukat [nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean eta nire herriko neskarik politenarekin ezkontzen naizenean ilargira joateko]

Horrela, askoz errazago irakurtzen dira perpausok. Edozein modutan, errazago irakur daitezke, kortxete barruan mendeko perpausak paratuz gero *-t(z)eko* osagarri ostean:

- Gogoa daukat [ilargira joateko]
- Gogoa daukat [ilargira joateko NAGUSIAGO NAIZENEAN]
- Gogoa daukat [ilargira joateko *nagusiago naizenean* eta DIRUZ JOSITA NAGOENEAN]
- Gogoa daukat [ilargira joateko *nagusiago naizenean, diruz josita nagoenean* eta NIRE HERRIKO NESKARIK POLITENAREKIN EZKONTZEN NAIZENEAN]

Jakiteko zergatik gaur egun erabiltzen den nagusi-nagusi “*-t(z)eko* osagarria + izena” ordena (eta ez “izena + *-t(z)eko* osagarria”), badirudi askok erabiltzen dutela ordena hori erdarazko egiturak eraginda:

- Tengo ganas [DE ir a la luna]
- [Ilargira joaTEKO] gogoa daukat

Ustea da, baina ustela, *de* bidezko osagarriak erdaraz, eman behar direla euskaraz izen aurrean, eta ekandu oker hori zabal-zabal dabil euskaraz. Adibide horiek bezalakoak ehundaka daude euskaraz. Berbarako, ikus dezagun beste adibide bat *de* bidezkoa, baina beste balio bat duena:

- He comprado una bicicleta [DE 100.000 euros]
- [100.000 euroKO] bizikleta bat erosi dut

Perpau hori ([100.000 euroKO] bizikleta bat erosi dut) eta horrelakoak beti entzun diegu (eta irakurri besterik ez daude hor-hemen dauden ahozko testuak eta Auspoa saileko liburuak) gure zaharrei honela erabiltzen (aurkezpen-testuinguru batean badaude emanda):

- Bizikleta bat erosi dut [100.000 euroKOa]

*Ilargira joateko* eta *100.000 eurokoa* informazioak ez dauzkagu zertan erabili izenaren ezkerretara; are gehiago, baldin eta luzeak edo konplexuak badira. Edozein modutan, *-t(z)eko* osagarriek, txikerrak badira, ez daukate hainbesteko garrantzirik ezker edo eskuma erabilita:

Jateko gogoa daukat = Gogoa daukat jateko

Bazkaltzeko ordua da = Ordua da bazkaltzeko

Ez dauka idazteko ohiturarik = Ez dauka ohiturarik idazteko

Hor jausteko arriskua dago = Hor arriskua dago jausteko

Bestalde, badira *-t(z)eko* osagarri batzuk, izen aurrean ipini behar-beharrezkoak. Hona hemen adibide batzuk:

- Urliak [bizarra kentZEKO makina bat] erosi du
- Sandiak [idazTEKO makina bat] erosi du
- Berendiak [belarra mozteko makina] erregalatu digu

Bestera esateko, kortxete barruko problematika ez da sintaktikoa, lexikala baino. Kortxete barrukoaren ordez berba bat jarriko bagenu moduan:

- Urliak [bizikleta bat] erosi du
- Sandiak [auto bat] erosi du

Edozein modutan, azkenaurreko multzoan perpaus biak erabil daitezke honela, gure euskaran behintzat:

- Urliak [makina bat] erosi du [bizarra kentzeko**A**]
- Sandiak [makina bat] erosi du [idazteko**A**]

Guk unitate honetan, hurrengo apartadu bietan (2. ADIBIDEAK eta 3. ARIKETAK), esan dugunez, ez ditugu horrelako egiturak (azkenekoak) landuko; ezpabere, gorago esan dugunez, honelakoak soilik:

- [Ilargira joateko] gogoa daukat

Eta horrelakoetan ezin daiteke, gure berbetan behintzat, erabili *-t(z)eko* barik *-t(z)ekoA*:

- ?? Gogoa daukat [ilargira joateko**A**]

*-T(z)ekoA* ez dugu euskaldun guztiok erabiltzen. Hartuta euskal idazle batzuk, hona hemen zeintzuek ez duten erabiltzen *-t(z)ekoA*, behintzat parentesi barruko liburuetan:

- Mogel J. A. (*Peru Abarka*)
- Axular (*Gero*)
- Tartas (*Sugearen errautsa*)
- Agirre J. B. (*Arpoi baten eran*)
- Erauskin J. R. (*Aien garaiak*)
- Salaberri S. (*Sagardotegiak*)
- Barandiaran B. (*Tratabideak*)

Beste idazle hauek *-t(z)ekoA* erabiltzen dute, behinik behin parentesia barruko liburuetan:

- Beovide Crispin (*Asisco loria*)
- Iztueta J. I. (*Ez direlako aketsak*)

Bestalde, joera lar gogorra dago gaur egun *-t(z)eko* osagarrietan azken lekuan erabiltzeko aditza eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia). Esaterako:

- Urliak ohitura dauka [astero 100 euroren okela eta 200 euroren arraina JATEKO]

Horrelakoak, ahoz zein idatziz (euskara batutik kanpo), honela-edo erabili ohi dira (*aditz-menderagailua* blokea kokatuta lehenengo edo bigarren lekuan):

- Urliak ohitura dauka [astero JATEKO 100 euroren okela eta 200 euroren arraina]

Hurrengo batean frogatuko dugu datu bidez, horrelako adibideak arruntak direla ahoz eta idatziz. Baina aurreragari, hona hemen J. A. Mogelen adibide batzuk *Peru Abarkatik* jasoak (ahaleginak egin ditugu adibideok euskara batuan ipintzen):

- Ez daukat etxe bat baino. Bizkaiko foruak ematen dit eskubidea [hautu**TZEKO**(hautatzeko) zuen arten gura dudana neure oinordekotzat]. (Dialogo III, 69. or.)
- (...) neskaitila honek atzeratu zuen gorputza, baina bai prestatu bere besoa [ema**TEKO** belarrondo hain sendo eta zolia], zeinda ikaraz eta uste bagako(bako) esku ezartzea, jausi zen behera; (Dialogo III, 68. or.)
- Bildurrik ez baluke galduko duela etxaguntza, burukomin eta atsekabe asko eman diezaiekete gurasoei; baina hauek daukatenean eskubidea eta aukera [ema**TEKO** gura duenari seme-alaben artean, ekarri eragingo diete lotsa, eta gordeko dira dongaro bizi izatetik. (Dialogo III, 69.-70. or.)
- Ez dugu etxetik irteten ezeren bila; usoak hazten ditugu hemen, ez geuk jateko, ezpada [eroa**TEKO** hartu-emana daukagun handiko edo abadeen etxera]. (66. or.)

Horrelako adibideak, mordoa darabil Mogelek *Peru Abarkan*. Beste idazle batzuetan ere topa daitezke, eta zer esanik ez, ahozko testuetan.

Mogelek berak osterantzeko adibideak ere ematen ditu: batetik, osagarri laburrak menderagailua (*-t(z)eko*) dutenak amaieran; bestetik, osagarri laburrak menderagailua dutenak ez hasieran ez amaieran, tartean:

- ... eta zabaldu zituen besoak [laztanen bat egi**TEKO**]
- Lau behi; bi uztartzekoak (...); beste biak [umeak haz**TEKO** nekatu baga(barik)]

- Jakin izan balu Marija nire emazteak [etor**TZEKO**] zinela zu...
- Gizonezkoek hazten zuten ileak [lepotik behera ezar**TZEKO**]

Argi dago *-t(z)eko* osagarria luzea bada, Mogelek hasieran jartzen duela menderagailua (eta aditza), eta laburra bada, atzera daroala. Gauza bera egiten dute beste idazle batzuek ere, baita hiztunok ere.

Bada beste puntu bat ere azterkizun. Testuinguru jakin batzuetan ezin daiteke “*-t(z)eko* + izena” sintagma erabil

\*[Sexua euskaraz gozatzeko gogoia]

\*[Sexuaz gozatzeko gogoia]

\*[Gozatzeko gogoia]

Derrigor-derrigor erabili behar da iruntzitara, “izena + *-t(z)eko*” sekuentzia, sintagma bitan:

Gogoia (...) [sexua euskaraz gozatzeko]

Gogoia (...) [sexuaz gozatzeko]

Gogoia (...) [gozatzeko]

Hurrengo batean oratuko diogu berriro gai honi.

Laburbil dezagun zer dugun helburutzat unitate honetan: *-t(z)eko* osagarriak alperrik daude emanda izenaren ezkerretara (goian adieraziriko salbuespenak kenduta), eta proposatzen dugu izenaren eskumatara paratzea, komunikagarriago egiteko perpausa, errazago irakurtzeko.

Inork gura badu informazio gehiago gai honen gainean, *Hizpide* aldizkarian dauka, 59. zenbakian, “Erlatibo aukerak euskaraz. Ikasi eta irakatsi” (41.-42. or.) artikulu jakingarrian, Bittor Hidakok idatzia. Xabier Alberdik ere informazio polita ematen du *Euskal estilo libururantz* liburu interesgarrian (98.-101. or.).

## 1.2. ADIBIDEAK

Hurrengo adibideetan *-t(z)eko* osagarriak agertzen dira den-denetan, eskumatara dutela izenen bat. Baina adibideotan beste egituraren batzuk ere ageri dira, adibidean-adibidean ezberdinak. Gu ahaleginduko gara problema guztiak ebazten edo konpontzen. Has gaitezen adibideak banan-banan garantzen, aletzen.

### 1.2.1.

#### Urtezahar

Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko astirik. (B, 2003-12-31, 7. or.)

Hor, perpaus kausal azalpenezkoa:

- (...), ez baitzaio geratzen urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko astirik

luzeegia da, eta nekagarria egiten du perpausaren irakurketa; izan ere, izena (*astirik*) du aurretik eta *-t(z)eko* osagarri luzea atzetik. Zergatik ez eroan aurrera *astirik*; edo, bestela esateko, atzera *-t(z)eko* osagarria?

- (...), ez baitzaio geratzen [astirik] [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko]

Txerta dezagun perpaus kausal azalpenezko hori perpaus osoan:

- Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen [astirik] [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko].
- Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio [astirik] geratzen [urtebetez pilatutako ondasun urriak saltzeko].

Aldaera horiek askoz errazago irakurtzen dira jatorrizko perpausa baino. Ontzat eman daitezke, baina nahi izanez gero, arin daitezke, errazago eman. Horretarako, ahozko estrategia bat erabiliko dugu, *-t(z)eko* osagarrion aurrera eroanda aditza (*saldu*) eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia), biak: *saltzeko*. Honela:

- Urduri dabil bi mila eta hirugarrena, ez baitzaio geratzen astirik [saltzeko urtebetez pilatutako ondasun urriak].

Badakigu aditza eta semaforoa, biak batera (*saltzeko*) aurreratzea ez dela gehienen gustukoa, baina arrunta da ahoz zein idatziz (idazle klasikoetan, Cardaveraz aurrekoetan batez ere). Gainera, ikusi ditugu Mogelen adibideak 1. TEORIA apartaduan, eta ez litzateke egon behar aitzakiarik aurreratzeke. Horrela, arindu egingo genuke alperreko karga euskarari, eta itzelezko mesedea egin irakurleari.

### 1.2.2.

#### **Herrialde katalanak:**

Hizkuntzaren Aldeko Elkartearen Koordinakundeak (CAL) katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko dei egin zuen. (B, 2003-12-27, 20. or.)

Perpaus hori ez da nekez irakurtzen, baina normal-normal egin nahi bada, nahiko da atzera eroatea *-t(z)eko* osagarria (*katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko*). Ipin dezagun aditzaren atzean, azkeneko lekuan:

- Hizkuntzaren Aldeko Elkartearen Koordinakundeak (CAL) [dei] egin zuen [katalana hizkuntza ofizial bakartzat izendatzeko].

Ondo dago, baina gura izanez gero, bada beste aukera bat, aurrera eroanda, ezkerretara, azkeneko kortxetean aditza (*izendatu*) eta semaforoa (*-t(z)eko* atzizkia), biak batera (*izendatzeko*)

- Hizkuntzaren Aldeko Elkarteen Koordinakundeak (CAL) [dei] egin zuen [katalana *izendatzeko* hizkuntza ofizial bakartzat].

### 1.2.3.

#### **Tolosaldeak harrapatuko zaitu**

Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko gidaliburu bat argitaratu berri dute, familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin (B, 2004-7-20, astialdia, 03. or.).

Hor, informazio luzenga (eta itxuraz osagarri bakar) batek eragozten du, besteak beste, normal-normal irakurtzea:

- Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko gidaliburu bat

Baina hori erraz konpontzen da koma bat jarrita *-t(z)eko* osagarriaren ostean:

- [Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko], gidaliburu bat

Komaren kontu hori perpaus osora eroanda, hau honetara geratzen da:

- Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, gidaliburu bat argitaratu berri dute, familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin.

Hor azken partea (*familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin*) errazago para daiteke zati bi eginda:

- Eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, gidaliburu bat argitaratu berri dute, 39 ibilbiderekin familia osoak egiteko modukoAK.

Testu horretan aditz nagusiaz gainera (*argitaratu berri dute*), bi informazio mota daude:

1. Informazio gunea: gidaliburu bat
2. Bestelako informazioak, osagarriak
  - 2a. *Zertarako*: eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko
  - 2b. *Zelakoa*: familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin

Pentsa daiteke, informazio motok (Gunea-osagarriak (zertarako-zelakoa)) ezin badira errazago eman, orduan perpausa ondo dagoela, zuzenketak eginda daudela. Gehienik ere trukaketa bat egin daiteke informazio moton artean. Konparaziorako:

- Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA [familia osoak egiteko moduko 39 ibilbiderekin].

- Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA [39 *ibilbiderekin* familia osoak egiteko modukoAK]

Aldaera horiek (*eta* juntagailua txertatu dugu), guk uste, jatorrizkoa baino errazago irakurtzen dira. Beste leku-trukaketa bat ere egin daiteke:

- Gidaliburu bat argitaratu berri dute, [familia osoak egiteko moduko 39 *ibilbiderekin*], eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.
- Gidaliburu bat argitaratu berri dute, [39 *ibilbiderekin* familia osoak egiteko modukoAK], eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.

Azken aldaerok, *eta* juntagailu bakook, guk uste, aiseago irakurtzen dira jatorrizko perpausa baino. Badago beste bide bat ere, jantziagoa, zeinismoa deitua (*zein...bait-* eta *zein...-(e)n* egiturak):

- Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ZEINAK 39 *ibilbide BAITitu* familia osoak egiteko modukoak.
- Gidaliburu bat argitaratu berri dute, ZEINAK 39 *ibilbide ditueN* familia osoak egiteko modukoak, eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko.

Zeinismoaren orde z erabil daiteke, gura izanez gero, *bait-* menderagailu hutsa. Amaitzeko, hona hemen beste bide bi, batzuentzat beharbada gustukoagoak (*-(r)ekin* atzizkia kenduta eta ordainetan *ditu(eNA)* paratuta):

- Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, ETA 39 *ibilbide ditu* familia osoak egiteko modukoak.
- Gidaliburu bat argitaratu berri dute eskualdea ezagutarazteko eta herri bideen ondarea gordetzeko, 39 *ibilbide ditueNA* familia osoak egiteko modukoak.

### 1.3. ARIKETAK

Orain arte, aurreko apartaduan, 2. ADIBIDEAKen, agertu zaizkigu *-t(z)eko* osagarriak ez eze baita bestelako egiturak ere, eta denak ebatzi ditugu. Orain puntu honetan, 3. ARIKETAKen, perpausetan *-t(z)eko* osagarriak agertuko zaizkigu bakarrik, eta ariketok sailkatuta daude errazetik gaitzagora.

Gomutan izan, irakurlea, zelako egitura dagoen zuzenkizun hurrengo ariketetan:

[*-t(z)eko* osagarria] + [izena] — [izena] + [*-t(z)eko* osagarria]

Hurrengo ariketak multzo bitan banatu ditugu zailtasun aldetik, kontuan hartuta zelan dagoen osatuta informazioa *-t(z)eko* osagarrian:

- t(z)eko* osagarrian osagai bakarra dago
- t(z)eko* osagarrian osagai bat baino gehiago dago

Ariketa bakoitzaren azpian eskema bat ematen da jakiteko zelan konpondu edo ebatzi ariketa. Eskema horretan kortxete barruan agertzen da egitura aztergaiko izena eta *-t(z)eko* osagarria. Eskemok ematen ditugu lehenengo ariketetan eta azkenurrekoan. Has gaitezen lehenengo multzoko ariketak egiten, eta eurotan *-t(z)eko* osagarria dago osagai bakarrez osatuta.

### 1.3.1.

#### **Animalia exotikoek jendearen jakin-mina piztu zuten**

Morgako azokan, lllamak, kanguru zuriak edota mapatxeak ikusteko aukera egon zen

Morgako azokan [aukera] egon zen [-T(Z)EKO osagarria]

### 1.3.2.

#### **Informazioaren erabilera dela eta**

Egun hauetan zenbait argazki ikaragarri ikusteko aukera izan dugu.

Egun hauetan [aukera] izan dugu [-T(Z)EKO osagarria]

### 1.3.3.

#### **Zenbakitan**

Lan kontuek eraginda edo, errealitatea zifretan ikusteko joera izaten dut batzuetan.

(...), batzuetan [joera] izaten dut [-T(Z)EKO osagarria]

### 1.3.4.

**ROBERTO BAGGIO.** Futbol jokalarri italiarrak zelaietara bueltatzeko eskaintza berezi bat jaso berri du.

Futbol jokalarri italiarrak [eskaintza berezi bat] jaso berri du [-T(Z)EKO osagarria]

### 1.3.5.

#### **Aurrezteko gaitasuna galdu dute euskal familiek**

INEn datuen arabera, 2003. urtean Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute beren irabazien zati bat aurrezteko gaitasuna.

(...) Hego Euskal Herriko sendiek galdu egin dute [gaitasuna] [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.6.

**‘Obaba’ Oscarren bidean**

Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du Espainiako akademiak Oscar sarietarako hautagai.

Espainiako akademiak Montxo Armendarizen azken filma aukeratu du [hautagai] [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.7.

**2010. urtean zabaldu nahi dute Araban ziklo konbinatuko zentrala**

Araban ziklo konbinatuko zentral termikoa egiteko tramiteak oso aurreratuta daude.

Araban oso aurreratuta daude [tramiteak] [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.8.

**Irudia, historiaren lekuko**

Gizakiok betidanik izan dugu gure esperientziak eta baita gure bizitzaren pasadizoak ere ondorengoei transmititzeko edo igortzeko beharra eta joera.

Gizakiok betidanik izan dugu [beharra eta joera] [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.9.

**Zalantza ugari**

Oso zaila egiten zait lerro hauek idaztea, atzoko sarraskiaren irudiak irensteko astirik ez dudalako izan.

(...), [astirik] izan ez dudalako [-T(Z)EKO osagarria] “edo”

(...), ez dudalako [astirik] izan [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.10.

**Erretzeko eskubidea defendatzen da**

Enpresariak erretzaileei etenaldiak egiteko aukera utzi beharko diete eta portaera hori hartzen duten langileen kontra ezin izango dute buruzagiek neurririk hartu.

Enpresariak [aukera] utzi beharko diete erretzaileei [-T(Z)EKO osagarria] eta (...)

## 1.3.11.

**Atxaga proposatu dute**

Hiru euskaltzainek Bernardo Atxaga proposatuko dute Juan Mari Lekuonak utzitako lekua hartzeko hautagai.

## 1.3.12.

**Garikoitz Altunak bederatzigarren partida irabaz dezake jarraian**

Garikoitz Altuna emaitza bolada gozoa igarotzen ari da, eta gaur bederatzigarren partida jarraian irabazteko aukera izango du Galarretan.

Orain bigarren multzoko ariketak egingo ditugu, zeintzuetan *-t(z)eko* osagarria osatuta baitago osagai bat baino gehiagoz.

## 1.3.13.

**Oroimenaren tuneletik**

Baiona Tipira gerturatzen direnek bihotzean zimiko bizia sentitzeko parada izanen dute.

## 1.3.14.

**EA, ERC eta CHA Europako koalizioa ixtekotan dira**

Eusko Alkartasuna (EA), Esquerra Republicana de Catalunya (ERC) eta Chunta Aragonesista (CHA) Europako hauteskundeetara elkarrekin joateko hitzarmena ixtekotan dira.

EA, ERC eta CHA [hitzarmena] ixtekotan dira [-T(Z)EKO osagarria]

## 1.3.15.

**Bilboren identitatea, lehen eta orain**

Roberto Zarrabeitia argazkilari-kazetariak Bilbon barrena osteratxo fotografiko bat egiteko aukera ematen digu, BBKren kultur gelan zabaldu duen *Bilbao* erakusketarekin.

**Adibideon nongo-noizkoak**

1-(*Gara*, 2006-5-1, 5. or.) 2-(*Berria*, 2004-5-1, 6. or.) 3-(B, 2005-10-12, 7. or.) 4-(B, 2004-2-29, 37. or.) 5-(B, 2004-3-21, 21. or.) 6-(B, 2005-9-30, 1. or.) 7-(B, 2006-5-6, 25. or.) 8-(B, 2003-7-1, 6. or.) 9-(B, 2004-3-12, 24. or.) 10-(*elNervión*, 2006-5-3, 5. or.) 11-(B, 2006-1-22, 1. or.) 12-(B, 2006-5-4, 30. or.) 13-(B, 2004-2-28, 56. or.) 14-(B, 2004-4-15, 9. or.) 15-(*Zabalik*, 225. zk., 25. or.)